Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4284

AGINDUA, 2009ko ekainaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Pasaiako (Gipuzkoa) «Pasaia Lizeoa» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuak Haur Hezkuntzako 1. zikloan eta Lehen Hezkuntzan unitateak gehitzeko eta Batxilergoan unitateak murrizteko baimena ematen duena.

Pasaiako (Gipuzkoa) «Pasaia Lizeoa» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak ikastetxe horretako Haur Hezkuntzako 1. zikloan unitate bat eta Lehen Hezkuntzan bi unitate gehitzeko eta Batxilergoan bi unitate murrizteko baimena eskatuz abiarazi duen espedientea aztertu da.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi ditugu: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (9ko BOE); ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua, araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituena (26ko BOE); azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua (19ko EHAA), 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri zituena —dekretu horrek, halaber, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen dekretuaren artikulu batzuen indarraldiari eutsi zion—; bai eta gai horretan erabiltzekoak diren indarreko gainerako xedapenak. Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Honen jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari 2009/2010 ikasturtetik aurrera Haur Hezkuntzako 1. zikloan unitate bat eta Haur Hezkuntzan bi unitate gehitzeko eta Batxilergoan bi unitate murrizteko baimena ematen zaio:

Kode-zenbakia: 20006717

Izen espezifikoa: «Pasaia Lizeoa»

Titularra: Pasaia-Lezo Lizeoa Irakaskuntza Kooperatiba Elkartea

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4284

ORDEN de 12 de junio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la ampliación de unidades de 1.º ciclo de Educación Infantil y de Educación Primaria y la reducción de unidades de Bachillerato al centro privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «Pasaia Lizeoa» de Pasaia (Gipuzkoa).

Examinado el expediente iniciado por el representante de la entidad titular del centro privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «Pasaia Lizeoa» de Pasaia (Gipuzkoa), en solicitud de autorización para la ampliación de una unidad de 1.º ciclo de Educación Infantil y dos unidades de Educación Primaria y la reducción de dos unidades de Bachillerato.

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa, que se ha unido al mismo la documentación exigida por la normativa vigente y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Vistos el Real Decreto 332/1992, de 3 de abril (BOE del 9), sobre autorizaciones de centros docentes privados para impartir enseñanzas de régimen general no universitarias, el Real Decreto 1004/1991, de 14 de junio (BOE del 26), por el que se establecen los requisitos mínimos de los centros que impartan enseñanzas de régimen general no universitarias, el Decreto 215/2004, de 16 de noviembre (BOPV del 19), por el que se establecen los requisitos mínimos de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años, y se mantiene la vigencia de determinados artículos del Decreto por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004, y demás legislación aplicable en la materia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza, a partir del curso escolar 2009/2010, la ampliación de una unidad de 1.º ciclo de Educación Infantil y dos unidades de Educación Primaria y la reducción de dos unidades de Bachillerato, al centro docente que se describe a continuación:

N.º de código: 20006717

Denominación específica: «Pasaia Lizeoa»

Titular: Pasaia-Lezo Lizeoa Irakaskuntza Kooperatiba Elkartea

Helbidea: Kanposantu bidea z.g. – Eskalantegi 901.

Udalerria: Pasaia

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa

Baimena:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloan 1 unitate bat gehitzea.

– Lehen Hezkuntzan bi unitate gehitzea.

– Batxilergoan bi unitate murriztea.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloan: 12 unitate, horietako bakoitza 8, 13, edo 18 ikaspostutarako edukierakoa; ikasleak urte batetik beherakoak, urte batetik birakoak, edo bitik hirurakoak diren hurrenez hurren.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloan: 12 unitate, 300 ikaspostutarako edukiera.

– Lehen Hezkuntzan: 23 unitate, 575 ikaspostutarako edukiera.

– Hezkuntza Berezian: 3 unitate.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: 12 unitate, 360 ikaspostutarako edukiera.

– Batxilergoan: modalitateak: «Zientziak eta Teknologiak» eta «Humanitateak eta Gizarte-zientziak», 4 unitate 140 ikaspostutarako edukierarekin.

2. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Oinarrizko Arautegia bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene, osasun, akustika, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak ere. Zentroko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimenemate honek ez dakar, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

Bigarrena.– Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 12a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Domicilio: Kanposantu bidea, z/g - Eskalantegi, 901

Municipio: Pasaia

Territorio Histórico: Gipuzkoa

Autorización:

– Ampliación de 1 unidad de 1.º ciclo de Educación Infantil

– Ampliación de 2 unidades de Educación Primaria

– Reducción de 2 unidades de Bachillerato

Composición resultante:

– Educación Infantil 1.º Ciclo: 12 unidades con capacidad cada una de ellas, para 8, 13 u 18 puestos escolares, según se trate de alumnos/as menores de un año, de uno a dos años, o de dos a tres años respectivamente.

– Educación Infantil 2.º Ciclo: 12 unidades con capacidad para 300 puestos escolares.

– Educación Primaria: 23 unidades con capacidad para 575 puestos escolares.

– Educación Especial: 3 unidades.

– Educación Secundaria Obligatoria: 12 unidades con capacidad para 360 puestos escolares.

– Bachillerato: modalidades de «Ciencias y Tecnología»y «Humanidades y Ciencias Sociales», con capacidad para 4 unidades y 140 puestos escolares.

Artículo 2.– El centro deberá cumplir el Código Técnico de la Edificación, aprobado por el Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, así como las condiciones higiénicas, sanitarias, acústicas, de habitabilidad, de seguridad y de accesibilidad que se señalen en la legislación vigente. La responsabilidad por el incumplimiento de dichas condiciones corresponde al titular del centro.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– El otorgamiento de la autorización contenida en la presente Orden no implica, en modo alguno, la obtención de ayudas a través del régimen de conciertos educativos.

Segunda.– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de junio de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.